

**“ARABAKO ERABERRIKUNTZA-INDUSTRIALDEA, S.A.”REN
ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN ARAUDIA**

I. KAPITULUA
Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Araudiak, Sozietatearen Administrazio Kontseiluaren jarduteko printzipioak, bere antolaketaren eta funtzionamenduaren oinarriko arauak eta Kontseilu hori osatzen duten pertsonen jokaera arauak finkatzea du helburu, hori guztia, kudeaketan ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeko.

2. artikulua. Aplikazio eremua

Araudi hau Sozietatearen Administrazio Kontseilua osatzen duten pertsona guztiek aplikatu eta bete beharko dute derrigorrez, baita Sozietatean goi zuzendaritzako karguak dituztenek ere, nahiz eta Kontseilari ez izan, fideltasun, leialtasun eta sekretu betebeharren inguruko alderdiei dagokienez, euren berezko izaerarekin bateragarri den neurrian.

Halaber, egiaz eta edozein arrazoi dela-eta, administrazio ardurak, handiak nahiz txikiak, gain hartzen dituztenei ere aplikatuko zaie araudi hau.

3. artikulua. Indarrean sartzea eta aldatzea.

Administrazio Kontseiluak onesten duenean sartuko da Araudia indarrean.

Administrazio Kontseiluari dagokio Araudian aldaketak sartzea, Lehendakaritzak edo Kontseiluko hiru kidek dituzten karguen arabera eskatuta, beharrezkoa edo egokia ikusten dutenean.

Araudia aldatzeko eskaera guztiak arrazoitu behar dira eta, horretarako, eskaera egiten dutenek proposamenaren testuarekin batera arrazoiak justifikatzeko eta proposatzen den aldaketaren irismena azaltzeko txostena eman behar dute.

Araudia aldatzeko proposamenen bati buruz eztabaidatu eta horren inguruan erabakiko duen Kontseiluaren bilkura-deialdia, gutxienez hamar egun natural

lehenago egin behar da. Deialdiarekin batera, proposamenaren testua eta justifikatzeko txostena bidali behar dira.

4. artikulua. Interpretatzea

Araudia, aplikagarri diren lege eta estatutu arauekin bat etorriz interpretatu behar da.

Arau horiek interpretatzeko orduan, derrigorrez beteko dira gobernu korporatiboaren gaineko informazio, gardentasun eta segurtasun alorreko oinarritzko betebeharrak.

Administrazio Kontseiluari dagokio Araudia aplikatzeko orduan sor daitezkeen interpretazio arloko zalantzak ebaztea.

5. artikulua. Hedapena

Kontseilariak eta Sozietateko zuzendaritzako goi kargudunek Araudia ezagutu, bete eta betearazi behar dute derrigorrez aplikagarri zaizkien alderdiei dagokienez. Horretarako, Kontseiluko idazkariak Araudiaren ale bana emango die euren izendapena onartzen duten unean edo kontratatzen dituztenean, kasuan-kasuan.

II. KAPITULUA

Kontseiluaren osaketa

6. artikulua.- Osaketa

Administrazio Kontseiluak gutxienez hiru kide eta gehienez bederatzi kide izango ditu. Akziodunen Batzar Nagusiak izendatuko ditu kide horiek indarreko lege eta estatutu aginduak betez.

Bazkideek, egoeren arabera egoki jotzen badute, Batzar Nagusian proposatuko dute kontseiluan zenbait kontseilari independente izatea.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren eremuan indarrean diren legeei jarraituta, bazkideek Batzar Nagusian proposatuko dute Kontseiluan modu orekatuan ager daitezela emakumeak eta gizonak.

Artikulu honetan xedatutakoak ez du eraginik izango akziodunen ordezkaritza proportzionalerako eskubidean, legeak onartutakoan.

III. KAPITULUA

Kontseiluaren egitura

7. artikulua. Kontseiluaren presidentzia

Administrazio Kontseiluak kideen artean presidente jauna edo andrea aukeratuko du.

Presidente jaun edo andreari dagokio Administrazio Kontseiluaren deialdia egitea, bileren gai-zerrendak burutzea eta eztabaidak zuzentzea. Hala ere, presidenteak Kontseilua deitu beharko du kideen herenek hala eskatzen badute.

Presidenteak ondoko ardura hauek gain hartuko ditu:

- Saiatuko da Kontseiluko kide guztiak bileretara joan daitezen; horretarako, kide guztiei deialdia bidaliko die Araudi honetan finkatutako modu eta epean.
- Kontseilariren bat kontseilura askotan joaten ez bada, zergatik ez den joaten egiaztatu beharko du.
- Kontseiluaren funtzionamenduaren ebaluazioa gainbegiratu du, baita horren ondorioz egin daitezkeen hobetzeko proposamenak abian jartzen diren edo antzemandako akatsak zuzentzen diren ere.

8. artikulua. Kontseiluaren idazkaria

Administrazio Kontseiluak idazkari bat izendatuko du. Idazkariak ez du kontseilari izan beharko.

Idazkariak presidenteari lagunduko dio bere lanetan eta kontseilariari behar duten aholkularitza eta informazioa emango die; gainera, sozietatearen dokumentazioa gordeko du, akten liburuetan bileren garapena behar bezala jasoko du eta sozietatearen erabakiak ziurtatuko ditu.

Idazkariak, edonola ere, funtzionamendu arauak ondo aplikatzen direla eta Administrazio Kontseiluaren barne funtzionamendua arautzen dituzten prozedurak egoki garatzen direla zainduko du.

Idazkariak bere gain hartuko du aktak jasotze eta sinatze prozedura egoki osoa, baita ondoren akta horiek Kontseiluko kide guztiei bidaltzeko ardura ere.

Prozedura bat finkatuko da bermatzeko idazkariak ondo aplikatzen dituela Sozietatearen dokumentazioa eta liburu ofizialak zaintzeari buruzko arau guztiak eta horren barne ikuskaritzari buruzko emaitza Gobernu Arduratsuen txostenean jasoko du.

9. artikulua. Kontseilari delegatu

Kontseiluak kontseilari delegatu bat edo batzuk izanda ditzake; kontseilari delegatu haiei zeregin jakin batzuk eskuordetuko dizkie, edo legez zein estatutuen arabera eskuorde daitezkeen zeregin guztiak emango dizkie.

Kontseilari delegatu bat baino gehiago badira, adierazi beharko da zein lan egingo dituzten solidarioki eta zein partzuergoan edo, kasua balitz, zeregin guztiak edo batzuk modu batera edo bestera egin behar ote dituzten.

10. artikulua. Batzorde betearazleak

Kontseilari bati zehazki eskuorde dakizkiokeen zereginenez gain, Administrazio Kontseiluak Batzorde Betearazle bat osa dezake eta berariaz eskuordetuko zaizkion zereginak izango ditu.

Eratuko balitz, Ondokoek osatuko dute batzorde betearazlea: presidentea, bi kontseilari (horietako bat kapitalaren gehiengoak izendatutakoen artean aukeratua eta bestea kapitalaren gutxiengoak izendatutakoaren artean aukeratua) eta zuzendari nagusia.

Kontseilu Administrazioaren presidentek batzorde betearazlearen presidente lanak burutuko ditu eta Kontseiluko idazkariak idazkari lanak egingo ditu.

Edonola ere, batzorde betearazlean ezingo dira eskuordetu berez eskuordetu ezin diren eskumenak, ezta Kontseiluaren gainbegiraketa funtzio orokorra aplikatzeko beharrezkoak direnak ere.

Batzorde betearazlean bilerak egingo ditu presidenteak deialdia egiten duenean.

Batzorde betearazleak Kontseiluari jakinarazi beharko dio zer gai landu eta erabaki hartu dituzten bileretan; horren inguruko akta egingo ditu Administrazio Kontseiluarentzat ezarritako moduan.

IV. KAPITULUA

Kontseiluko lantaldeak

11. artikulua. Administrazio Kontseiluaren lantalde operatiboak

Kontseilari bati banaka eskuordetu dakizkiokeen zereginenez gain, eta erabakitzeko ahalmen orokorreko batzorde betearazle bat eratzeko daukan eskumenaz gain, Kontseiluak, halaber, lantalde delegatuak sor ditzake jarduera esparru zehatzen arabera, baita beste organo aholku-emaile batzuk ere.

Administrazio Kontseiluko idazkariak burutuko ditu idazkari lanak lantalde horietan. Lantaldeak bilduko dira bakoitzaren presidenteak deialdia egin ondoren. Berariaz aurreikusten ez diren alderdietarako, Sozietatearen Estatutuek eta Araudiak xedatutako funtzionamendu arauak aplikatu dira, betiere bateragarri baldin badira lantalde hauen izaera eta funtzioekin.

Kontseiluak osatutako lantalde guztiek bileren aktak egingo dituzte Administrazio Kontseilurako aurreikusitako moduan.

V. KAPITULUA

Kontseiluaren zereginak

12. artikulua. Kontseiluaren eskumenak

Batzar Nagusiaren eskumeneko gaiak alde batera utzita, Administrazio Kontseilua Sozietatearen erabaki, kontrol eta ordezkartzako organo gorena da.

Kontseiluaren politika ondokoa da: Sozietatearen kudeaketa arrunta organo betearazleetan eta zuzendaritza taldean eskuordetzea, eta bere jarduera gainbegiratzeko zeregin orokorrean oinarritzea.

Ezingo dira eskuordetu legez edo estatutuz Kontseiluarenak diren eskumenak, ezta gainbegiratzeko funtzio nagusia modu arduratsuan egiteko beharrezkoak diren eskumenak ere.

Sozietateko Estatutuetan aitortzen zaizkion zereginenez gain, Administrazio Kontseiluak ondoko ardurak ere izango ditu:

.- Sozietatearen Plan Estrategikoa onartzea eta aldian-aldian noraino bete den eta aplikatu den egiaztatzea.

.- Urteko Kudeaketa Plana onestea; horretan, aurrekontuen proposamena sartuko da. Gainera, horren burutzapenari buruzko ebaluazio partzialak egitea.

13. artikulua. Inbertsioaren alorreko erabakiek gizartean eta ekonomian duten eragina

Inbertsioen memorietan —eta Kontseiluaren onespena behar dute memoria horiek—, inbertsio horiek ekonomian eta gizartean duten eraginari buruzko azterketa sartuko da, eta dagokion bilerako aktan Kontseiluak alderdi horiek nola baloratzen dituen jasoko da.

VI. KAPITULUA

Kontseiluaren funtzionamendua

14. artikulua. Kontseiluaren bilerak

Administrazio Kontseiluak derrigorrez urtean hiru ohiko bilera egingo ditu gutxienez, lauhileko bakoitzean behin.

Halaber, Kontseiluak ez-ohiko bilerak egingo ditu presidenteari Sozietatearen funtzionamendu onerako egoki iruditzen zaionean.

Ohiko bilerarako deialdia eskutitzez, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz egingo da, presidente jaun edo andreak aginduta.

Deialdia eskutitzez egiten bada, gutxienez hamar egun natural lehenago bidaliko da eta posta elektronikoz eginez gero, zazpi egin natural lehenago. Kontseilari bakoitzari bidaliko zaio deialdia horretarako eman duen helbidera eta, horrekin batera, bileraren gai-zerrenda eta horri dagokion informazioa ere bidaliko da.

Kontseiluaren ez-ohiko bileren deialdia telefonoz egin daiteke, gutxienez 48 ordu lehenago, eta ez dira aurreko paragrafoan aipatutako gainontzeko baldintzak bete beharko baldin eta presidenteari iruditzen bazaio egoerak hala gomendatzen duela.

Administrazio Kontseiluaren bilerak normalean Sozietatearen egoitzan burutuko dira, baina presidentek erabakitzen duen beste edozein lekutan ere egin daitezke (deialdian leku hori zehaztu beharko da).

Deialdirik egin behar Kontseiluaren bilerak onargarriak izango dira, baldin eta kontseilari guztiak bertaratu badira edo ordezkatuak badaude eta aho batez onartzen badute bilera egitea.

Kontseiluak idatziz eta bilerarik egin gabe erabakiak har ditzake ondoko kasuan soilik: ezein kontseilaririk ez badu ezer adierazten prozedura horren aurka.

Bilera bakoitzaren deialdian, bilera hori gutxi gorabehera zenbat iraungo duen adieraziko da. Denbora hori behar adinakoa izango da gai-zerrendako puntu guztiak sakon aztertzeko eta galdera-eskarietarako astia izateko.

15. artikulua. Bileren garapena

Kontseilua behar bezala osatuta geldituko da gutxienez kideen erdiak gehi bat agertzen badira (kideak zuzenean edo ordezkatuta). Kontseilarien kopurua bakoitia bada, aurreko baldintza hori betetzat joko da, baldin eta bertaratutako eta ordezkaturako kontseilari kopurua bertaratu ez direnena edo ordezkazarik ez dutenena baino handiagoa bada.

Kontseilariak Kontseiluko bileretara joan behar dute eta, ezin badute joan, saiatuko dira kontseiluko beste kide bat bidaltzea beren ordezkari. Ordezkariak idatziz azalduko da eta jasota egongo dira, kasua balitz, dagozkion argibideak. Presidenteak erabakiko du, zalantzarik balego, bilerara etorriko ez diren kontseilariak emandako ordezkariak baliozkoak diren edo ez.

Presidenteak eztabaida antolatuko du eta saiatuko da organoaren eztabaidetan kontseilari guztien parte-hartzea sustatzen. Gaiak nahiko eztabaidatu dituztela uste duenean, bozkatzeko eskatuko die.

Legeak, Sozietatearen Estatutuek edo Kontseiluaren Araudiak gehiengo indartua eskatzen duten kasuetan izan ezik, erabakiak bileran bertaratutako kontseilarien

(zuenean edo ordezkarien bidez bertaratuta) gehiengo osoaren bidez hartuko dira. Presidenteak, edo bere ordezkariak, kalitatezko botoa izango du berdinketak ebazteko orduan.

Kontseilari bakoitzak (zuzenean zein ordezkariaren bidez azalduta) boto bana izango du.

16. artikulua. Kontseiluaren aktak

Idazkariak Administrazio Kontseiluko bileraren akta egingo du. Idazkaria ez badago, kontseilari gazteenak egingo du akta edo, bestela, Kontseiluak bileran bertan erabakitako pertsonak.

VII. KAPITULUA **Kontseilariak izendatzea eta kargu-uztea**

17. artikulua. Kontseilariak izendatzea

Batzar Nagusiak izendatu eta berraukeratuko ditu kontseilariak, betiere Sozietate Anonimoen Legeak, Euskadiko Ondarearen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuak eta Sozietatearen Estatutuek xedatutakoarekin bat etorritik.

Idazkariak kontseilari berriei informazioa eta orientazioa emango die enpresaren alderdi garrantzitsuenei buruz, Kontseiluak landu dituen gai garrantzitsuenei buruz, Kontseiluaren araudiari buruz eta bileren funtzionamendu mekanismoei buruz.

18. artikulua. Karguaren iraupena

Kontseilariak karguan arituko dira Sozietateen Estatutuek finkatutako epean. Epe hori amaitutakoan, berriro aukeratuak izan daitezke epe berdinerako edo epe laburrago baterako.

Kooptazioz izendatutako kontseilariak karguan izango dira Batzar Nagusiaren lehen bilera egiten den egunera arte.

19. artikulua. Kontseilarien kargu-uztea

Kontseilariak karguari utziko diote kargurako ezarri zen epea amaitzen denean edo Batzar Nagusiak hala erabakitzen duenean legez eta Estatutuz esleituta dituen eskumenak erabilia.

Kontseilariak beren kargua Administrazio Kontseiluaren esku jarri beharko dute eta, honek egoki irizten dionean, dimisio formala aurkeztu beharko dute ondoko kasuetan:

- a. Legeak aurreikusitako bateraezintasun edo debeku kasuren batean daudenean.
- b. Kontseilari moduan dituzten betebeharrak urratzen dituztenean.
- c. Kontseiluan jarraituz gero Sozietatearen interesak arriskuan jar ditzaketenean.

VIII. KAPITULUA

Kontseilarien betebeharrak (Kode deontologikoa)

20. artikulua. Portaera irizpideak

Ondoko irizpideek gidatu beharko dute uneoro Administrazio Kontseiluaren jardura:

- a. Sozietatearen xedea betetzea
- b. Sozietatearen bideragarritasunaren alde egitea
- c. Sozietatearen balioa handitzea

Horretarako guztietarako, eskura dituen baliabideen kudeaketa optimizatu beharko du, langileekin, hornitzaileekin, finantzariekin hitzartutako kontratuak fede onez beteko ditu eta, orokorrean, Sozietatean modu arduratsuan kudeatzeko behar diren betebeharrak etikoak beteko ditu.

Antolaketa korporatiboari dagokionez, Kontseiluak behar diren neurriak hartuko ditu Kontseiluak Sozietatearen zuzendaritza gainbegiratzen duela bermatzeko.

21. artikulua. Kontseilariaren betebeharrak

Kontseilariak Sozietatearen kudeaketa gidatu eta kontrolatu behar du gero eta balio handiagoa izan dezan lortzeko.

Egin beharrekoak egiteko, kontseilaria Sozietatearen interesak lortzeko beharrezko arduraz arituko da, Sozietatearekiko leialtasun betebeharra zainduko du eta bereziki ondoko betebeharrak izango ditu:

- a. Behar dituen denbora eta ahaleginak erabiliko ditu Sozietatearen administrazioarekin lotutako gaiak aldi berean jarraipena egiteko; horretarako, behar duen informazio guztia bilduko du.
- b. Kontseiluko bileretara joateko konpromiso pertsonala gain hartuko du eta eztabaidetan modu aktiboan parte hartuko du iritziarekin eraginkortasunez erabakiak hartzen laguntzeko.
- c. Administrazio Kontseiluak agintzen diona bete egingo du, bere jardura konpromisoaren barruan baldin badago.
- d. Sozietatearen kudeaketaren inguruan irregulartasunaren baten berri baldin badu, hori aztertuko du eta arrisku egoera guztiak zainduko ditu.
- e. Orokorrean, Legeek eta Araudiek ezarritako betebeharrak beteko ditu Sozietatearen interesekiko fideltasunarekin eta Sozietatearen araudien Legearen edo interes sozialen aurka egiten duten akordioen kontra agertu beharko da. Gainera, interesen horiek zaintzeko beharrezkoa jotzen badu, aktan aurka agertu dela jaso dezaten eskatuko du.

22. artikulua. Konfidentzialtasun betebeharra

Kontseilariak, euren funtzioak utzi ondoren ere, isilik gorde beharko dituzte informazio konfidentzialak eta karguaren ondorioz ezagutzen dituzten datu, txosten eta aurrerakin guztiak zaindu beharko dituzte. Horiek guztiak ezingo dizkiete beste batzuei jakinarazi edo zabaldu Sozietatearen interesen kalterako izan daitekeen.

23. artikulua. Gardentasun eta informazio betebeharra

Erabakiak baldintzatzeko moduko interes partikular batzuk baldin badituzte kontseilariak, Sozietateari interes horiek jakinarazi beharko dizkiote.

Sozietateak eskatutako, Kontseilariak Sozietateari jakinarazi beharko dio partaidetzarik duen Sozietateak duen xede soziala bezalako, antzeko edo osagarriko jarduera duten beste Sozietate batzuetan; horretan zer kargu edo funtzio dituen; Sozietateak duen xede soziala bezalako, antzeko edo osagarriko jarduera duten beste sozietate batzuetan bere kontura lana egiten duen eta, orokorrean, Sozietatearen administrari bezala esanguratsu gerta daitekeen beste edozein gertakari edo egoera ere.

Halaber, Kontseilariak Sozietateari bere egoera profesionalean gertatzen diren aldaketa esanguratsu guztien berri eman beharko dio, aldaketa horien ondorioz aldatu egiten bada pertsona hori kontseilari izendatua izatera eraman zuen izaera edo egoera edo aldaketa horien ondorioz interes gatazka sortzen bada.

Gainera, Kontseilaria erreklamazio judizial, administratibo edo bestelako batean inplikaturik baldin badago eta horrek Sozietatearen erreputazioan kalte handia sor badezake, horren berri eman beharko dio Sozietateari.

24. artikulua. Interes-gatazka

Kontseilariak Sozietateari zor dion leialtasun betebeharra dela medio, bere edo berarekin lotutako pertsonen eta Sozietatearen artean interes-gatazka egoerarik sor ez dadin zainduko du. Baina interes-gatazka eragozterik ez badu, horren berri emango dio Sozietateari. Zehazki honako hauek betez:

- Kontseilaria ez da azalduko berarekin zuzenean nahiz zeharka zerikusia duten gaiei buruzko eztabaidetara eta ez du eztabaida horietan parte hartuko.
- Kontseilariak ezingo du zerbitzu profesionalen edo merkataritza zerbitzuen transakziorik burutu, ez zeharka, ez zuzenean, Sozietatearekin, ondoko salbuespenarekin: aurretiaz jakinarazten badu interes-gatazka dagoela eta Kontseiluak transakzio hori onartzen badu.
- Kontseilaria ezingo da Sozietatearen negozio-aukera batez baliatu bere onurako edo berarekin lotura duen beste pertsona baten onurako. Negozio-aukeratzat, kontseilari lana egitean edo Sozietateren baliabideez

eta informazioaz baliatuz sortutako edo aurkitutako edozein inbertsio edo merkataritza-eragiketa bat egiteko aukera joko da.

Kontseilariak Sozietatearekiko duten leialtasuna dela-eta, presidenteari edozein gehiegikeri edo urraketa jakinarazi behar diote halakorik ezagutzen dutenean, batez ere informazio garrantzitsua edo pribilegiatua erabiltzearekin zerikusia badu.

25. artikulua. Sozietatearen izena erabiltzea

Kontseilariak ezingo du Sozietatearen izena erabili edo Sozietatearen administrari izaeraz baliatu bere konturako edo berarekin zerikusia duen beste inoren konturako eragiketak burutzeko.

26. artikulua. Publikoa ez den informazioa

Publikoa ez den Sozietatearen inguruko informazioa bakar-bakarrik erabil daiteke erabilera horrek Sozietateari kalterik egiten ez badio.

27. artikulua. Lotutako pertsona

Kapitulu honen ondorioetarako, Kontseilariari lotutako pertsonatzat joko dira ondokoak:

- a. Pertsona fisikoa den kontseilariarekiko:
 - (i) Kontseilariaren ezkontidea edo horren pareko harreman afektiboa duen pertsona.
 - (ii) Kontseilariaren edo bere ezkontidearen aurreko ahaideak, ondorengoak eta neba-arrebak.
 - (iii) Kontseilariaren aurreko ahaideen, ondorengoen eta neba-arreben ezkontideak.
- b. Pertsona juridikoa den kontseilariarekiko:
 - (i) Pertsona juridikoa den kontseilariaren ahalorde orokorra duten ahalordedunak edo kontseilariak.

- (ii) Pertsona juridikoa den kontseilariaren ordezkariarekiko lotutako pertsonatzat hartzen direnak artikuluko honen a) hizkian zehaztutakoarekin bat etorritu.

IX. KAPITULUA

Kontseilariaren eskubideak eta ahalmenak

28. artikulua. Informazio eta ikuskapen ahalmenak

Kontseilariak Sozietatearen edozein alderdiri buruzko informazioa eskuratzeko ahalmen zabalenak ditu, baita Sozietatearen liburu, erregistro, dokumentu eta eragiketen gaineko aurrekari guztiak aztertzeko eta Sozietateren instalazioak ikertzeko ere.

Informazio eskubidea mendeko Sozietateetara eta partaidetzetara zabaltzen da.

Sozietatearen kudeaketa arrunta ez oztopatzeko, Kontseiluaren presidentearen edo idazkariaren bitartez gauzatuko da informazio ahalmena. Horiek kontseilariaren eskaerei erantzuniko diete eta eskatutako informazioa emango diete zuzenean, dagokion mailan solaskide egokiak eskainiz edo beharrezko neurriak hartuz "in situ" nahi dituen ikerketa eta ikuskapenak egin ahal ditzaten.

29. artikulua. Adituen laguntza

Kontseilariak, beren jardura burutzeko laguntza behar badute, lege, kontabilitate zein finantza aholkulariak edo beste aditu batzuk kontratatuzko aukera dute edo aditu haiek bileretara joan daitezkeen eska dezakete.

Kargua burutzeko orduan nolabaiteko garrantzia edo konplexutasuna duten gaien inguruan egin beharko da eskaria.

Kontseiluaren presidenteari jakinarazi beharko zaio kontratatuzko erabakia eta kontratazioa ezetsi daiteke ondokoak egiaztatuz gero:

- a. Ez dela beharrezkoa agindutako funtzioak ondo burutzeko.
- b. Kostua ez dela arazoizkoa arazoaren garrantzia kontuan izanik.

- c. Sozietateko aditu edo teknikariek egoki eman dezaketela eskatutako laguntza teknikoa.

30. artikulua. Kontseilariaren lansaria

Kontseilariek ez dute ordainik jasoko euren kargua burutzearen truke.

X. KAPITULUA

Gobernu korporatiboa

31. artikulua.- Gobernu korporatiboaren txostena

Administrazio Kontseiluak urtero egiten duen jarduerari buruzko txostenean edo Sozietatearen web orrian gobernu korporatiboari buruzko informazioa argitaratu behar du.

Txosten horrek, Sozietatearen gobernu sistemaren egiturari eta praktikan duen funtzionamenduari buruzko azalpen xehea eman beharko du. Edonola ere, gobernu korporatiboaren txostenak gutxienez ondokoak jaso beharko ditu:

1. Sozietatearen jabetzaren egitura.
2. Sozietatearen administrazioaren egitura, osaketari, Administrazio Kontseiluaren antolaketa eta funtzionamendu araei eta kideen identitateari eta lansariei buruzko informazioa barne.
3. Arriskua kontrolatzeko sistemak.
4. Batzar Nagusiaren funtzionamendua, egiten dituen bilerei buruzko informazioa barne.
5. Gobernu korporatiboaren gomendioen jarraipen maila edo, egokia balitz, gomendio horiek ez betetzeko arrazoiei buruzko azalpena.